

Soltxagak Gobernuaren politika liberalizatzailea aurkeztu zuen

Kapital mugimendu askatasuna eta arantzelen desagerpena bideratuko dira

Espainiako ekonomia are gehiago liberalizatzeko politika egingo du hemendik aurrera Ekonomia Ministeritzak. Hemendik aurrera herrialde guztietako kapitalek eta espainiarrek ere askatasun osoz mugitu ahal izango dute. Beste neurri batzuen artean, langabetuek zailtasun handiagoak izango dituzte lan eskaintzei uko egiteko.


MADRIL

Carlos Soltxaga Ekonomi ministroak herenegun aurkeztu zuen Diputatu Kongresuaren aurrean, bere Ministeritzak hurrengo urteotan egingo duen politika ekonomikoa. Hartuko den neurririk garrantzitsuena kapital mugimenduen liberalizazioa da. Neurri honen arabera, edozein espainiarrek beste herrialde batean kontu korrontea ireki edo mailegua eskatu ahal izango du.

Abenduaren 31rako, GATteko herrialdeekin (Arantzel eta Merkataritza buruzko Akordio Orokorra), Japonia eta ekonomi zentralizatua duten herrialdeekin zeuden 170 arantzel desagertuko dira. Bideo, makina erreminta eta osagai elektronikoen inportazioetan izango du eragina batez ere.

LAN MALGUTASUNA SENDOTU

Soltxagaren beste helburua lan malgutasuna sakontzea da. Langileak kontratatze baldintzak gutxituko dira eta lan araudiak ezabatuko. Behin-behineko kontratuen epea jaistearen alde agertu zen Ekonomi ministroa, nahiz eta bere esanetan «lan munduan eragin baikorra izan duten». Langabetuek egiten zaizkien lan eskaintzak eta lanbide heziketa ikastaroak onartu egin beharko dituzte hemendik aurrera, horrela ez egitera langabezi



Soltxagak politika ekonomikoaren egiteasmoak aurkeztu zituen.

CUADRADO

✓ Kapital mugimenduen liberalizazioari esker, edozein espainiarrek beste herrialde batean kontu korrontea ireki edo mailegua eskatu ahal izango du.

✓ Langabetuek egiten zaizkien lan eskaintzak onartu egin beharko dituzte hemendik aurrera, horrela ez egitera langabezi laguntzak kenduko zaizkielako

laguntzak kendu egingo zaizkielako. Langileak kaleratzeko araudia ez da malgutuko, Gobernuaren ustez erabaki hori sindikatu eta enpresariekin bat hartu behar bait dute.

Estatuak aire garraio eta telekomunikazioetan duen monopolioa desagertaraziko du Gobernuak. Defizit publikoaren aurkako borroka bertan behera utziko du momentuz Ekonomi Ministeritzak. Soltxagak adierazi zuenez, 1992ko defizita % 2ra iritsiko da. Gobernuak zerbitzu

sozialen maila mantendu egingo duela eta zergak ez dituela igoko iragarri du.

OPOSIZIOA NEURRIEN ALDE

Oposizioko alderdiak, IUren salbuespenarekin, neurri berrien alde agertu ziren, baina Soltxagaren jarrera salatu zuten, Aznarren esanetan «berandu aurkeztu ditu eta zehaztasuna falta zaie». Ramon Espasa IUko bozeramaleak «politika neoliberala» dela azpimarratu zuen.



SNCFk Abiadura Handiko Trenaren hedapena mugatu behar izan du.

SNCFk proiektuak atzeratuko ditu arazo ekonomikoak direla medio

M.E. / BAIONA

SNCFk, Trenbideetako enpresa estatalak bere zalantza plazaratu zuen Parisen joan zen ostegunean. Bertan Abiadura Handiko Trena izan zen aipagai nagusia. SNCFk bere 180 milioigarren bidaiaria ospatu arren datorren urriaren 3an Genève-n, Jacques Fournier-k SNCFko lehendakariak arazo ekonomiko batzuk agertarazi zituen.

SNCFko inbertsioaren apaltzea azpimarratu zuen. Beraz, SNCFk 20.000 milioi liberako (360.000 milioi pezeta) inbertsioetatik 400 milioi liberakoak atzeratuko dira. Erran nahi du Ile de France eskualdeko AHTko trenbidea 1994ean ireki behar zena, azkenean 1996an egingo dutela. Bordale eta Lillen (Ipar Fran-

tzia) arteko trenbide zuzenak beranta hartuko du eta 1996ak arte Akitania-tik Ipar Frantziara joateko Parisetik pasa beharko da.

Bestalde, SNCFko sozial egoera larriak izan behar luke datorren hilabeteetan, 3.500 lanpostu desagertuko bait dira. Ildo beretik, SNCFk 50 trenbide kendu beharko lituzke. Zerrenda agertuko du datorren irailaren 26an.

Ekialdeko AHTren xedeari buruz, dirua galdu behar luke SNCFk. Jacques Fournieren esanetan: «Ekialdeko AHT egiteak ez du SNCFeko aurrekontua desorekatuko». Duela aste batzuk, Paul Quiles-ek, Frantziako Ekipamendu ministroak Ekialdeko AHTrentzat diru iturri pribatuak sar erazi nahi zituela esan zuen.

Leonen independentzia eskatzen duen talde berria agertu da

LEON

Leon probintziako independentzia eskatzen duen talde berria agertu da, 'Union Radikal Leonesista Independiente' alegia. Talde horrek eza-gutzera eman zuen bere burua Leoneko Ordoño kalea propaganda paperez bete zuenean. Baina aurretik, abuztuaren 24ean, Udaltzaingoak talde horretako propaganda zeraman gaztea atxilotu zuen, Udaletxera in-

darrez sartu nahi zuenean. Gazte horri harrapatu zitzaizkion paperak eta lehengo egunean kalean agertu zirenak berdinak ziren eta bertan Leoneko independentzia eskatzeaz gain, politiko eta apaizen aurkako irudiak eta ETaren goraiamenak azaltzen ziren. 16 urteko gazteak onartu zuzenez, Union Radikalek independentzia bide baketsuen bitartez lortu nahi du eta unibertsitatik eta batxiler mailako ikasleek osatzen dute.

Frantses kazetaria hil zen Kroazian mina zapaltzerakoan

ZAGREB

Pierre Blanchet kazetari frantziarra hil zen herenegun Kroazian mina bat zapaldu eta honek eztanda egin zuenean. Gertakizuna Petrinja herrian izan zen, Kroaziako hiriburua den Zagrebetik berrogeitamarren bat kilometrotara. Jugoslaviako Armadako tropek inguratzen dute Petrinja eta Kroaziako Goardia Nazionaleko indarrek borroka gogorak dituzte aspalditik. Pierre Blanchet 'Le Nouvel Observateur' aldizkarian lan egiten zuen eta Jugoslavian berri-malea zen gerra hasi zenetik.

Blanchetekin batera zegoen Patrick Riganti suitzarrak, 'Radio Suisse Romande' irratiako korrespondentsala, zauritua izan zen baina bere osasun egoerak hobera egin du.

UNED-BERGARA IKASTETXE ELKARTUA 1991/92 IKASTURTERAKO MATRIKULA EPEAK

LEHENENGO EPEA: Irailaren 17tik Urriaren 16ra

- Ekainean esaminak gainditu zituzten UNEDeko ikasle zaharrak.
- Ekainean selektibitatea aprobatu zuten INBADeko ikasleak.
- Preinskribzioa eskatu zuten eta baiezkoa eman zaien ikasle berriak.
- 25 urtetik gorako Akzesio Ikastaroko ikasle berriak (ez dute preinskribzio beharrik izan)

BIGARREN EPEA: Urriaren 1etik 31ra.

- Irailen esaminatu diren UNEDeko ikasle zaharrak.
- Irailen selektibitatea aprobatu duten INBABeko ikasleak.

ARGIBIDEAK

UNED-BERGARA Ikastetxe Elkartuko Idazkaritza
San Martin Agirre Enparantza, 2/g (69 aptdoa)
20570 BERGARA
Tfnoa.: (943) 761342-3

BULEGO ORDUAK: asteartetik ostiralera, 10'30etatik 12'30etara gizez eta 17'30etatik 20'00etara arratsalde. Larunbata goizez 9etatik 12etara (Urritik)



CENTRO ASOCIADO UNED-BERGARA PLAZOS DE MATRICULA PARA EL CURSO 1991/92

PRIMER PLAZO: Del 17 de Septiembre al 16 de Octubre

- Alumnos antiguos de la UNED que hayan superado los exámenes en las pruebas de Junio.
- Alumnos del INBAD que hayan aprobado la selectividad en Junio.
- Alumnos nuevos que solicitaron preinscripción y han recibido contestación afirmativa.
- Alumnos nuevos del Curso de Acceso para mayores de 25 años (no han precisado preinscripción).

SEGUNDO PLAZO: del 1 al 31 de Octubre

- Alumnos antiguos de la UNED que se han examinado en las pruebas de Septiembre.
- Alumnos del INBAD que hayan aprobado la selectividad en Septiembre.

INFORMACION

Secretaria Centro Asociado UNED-BERGARA
Plaza San Martin de Aguirre s/n (Aptdo. 69)
20570 BERGARA
Tfnoa.: (943) 76 13 42-3

HORARIOS DE OFICINA: de martes a viernes de 10'30 a 12'30h. por las mañanas y de 17'30 a 20'00h. por las tardes. Sábados por la mañana de 9'00 a 12'00h. (desde el mes de Octubre).